

AKELARRE - N. Basterretxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN


bbk



Estitxu Arregi  
"Euskaldunoi beti  
gustatuko zaigu  
kantatzea"

Gaztedi Dantza Taldea:  
50. Urteurrena


# betikoak



## Pontoiko errota (1853)

*Begoñako lurretako bazter hontara etorri gara Ibilaldia'01 egunokaz egin dalako. Goiko pinturan Pontoiko errota zana ikusten da orain dala ehunda berrogeita hamar urte. Errota hori ondo-ondoan ogi fabrika eukan. Batean garia eta artoa ibaiaren uraren indarrez urun egin eta bestean urun horregaz ogia atara. Fabrika zana urtetan galduta egon ostean gaur egun Abusu ikastola da, horma zaharrak ederto atonduta. Errota eta fabrikearen multzoa 1794an eraiki eben eta lehenengo karlistadan bieri su emon eutsoen bertan bilbotarrentzako ogia egiten zalako. Bigarren karlistadan oster a be erre eben baina gero martxan jarri eben. 1920 urtera arte beharrean ibili ziran errota eta fabrika. Pontoiko errotaren hondarrak 1987an bota ebezan, 1983ko uriola handien osteko obretan.*

*Marrazki eta litografia Pedro Pérez de Castrok egin eban 1853 urte aldean. "Vizcaya. Molino del Montón, en el paseo de los Caños, en Bilbao" titulua eroan. Geuk Euskal Museoak argitara emandako "Bilbao. Estanpak (1575-1860)" liburutik hartu dogu.*



▶ Iritzia .....	.4	▶ Mahatsberriak .....	.20
▶ Gaztedi Dantza Taldea .....	.5	▶ Hezkuntza .....	.24
▶ Begoña eta Euskerea .....	.10	▶ Mendi Ibilbidea .....	.26
▶ Irratia.com .....	.12	▶ Kultura: Saioa García .....	.28
▶ Bakarka: Estitxu Agirre .....	.15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	.30
▶ Inkesta .....	.19	▶ Hileko Argazkia .....	.31

Hamen betik esaten dostie politikien ganiengatik ez egitteko eta, baie beti lez, gaur bere ez dotziet putokasoripere egingo ta gure doten modure ta gure doten kontuen ganiengatik egingo dot berba. Ta zegaittik politikie? Ba, beitu, eleziñoen egunien mahaidxen egoteko geittu zostien, bokal edo sekretaridxo edo eztakizeostidxe, total, han inok ez zeuen jakin zer zan. Tire, goixeko zortzidxetan hantxe kolejidxoan, ezpabere, multie, ta han arras-tiko zortzidxek arte, ta ez zan orduen akabau, ez. Konteu egin bier dala, ta hamen hainbeste, han ez dakit zenbat, ta total, boto bat falta dala, ta atzera kontau, ta atzera apuntau... Total, holan gaueko hamarrak arte, hamalau ordu luze kolejidxoan. Ta nik iñoz ez dot hainbeste denbora pasau eskolan, segiden behintzet.

Halan ixen zan ba orduko egunekoa. Ta maietza aurrera doala, Etxebarrian Eskola Publikoaren Festa, Lapeñan Ibilaldia... Danak ingeruen, eskolien festak, ta baten batek esan dosta: "Zu, zer ez zoaz Etxebarrire?" edo "Ez zoaz Ibilaldire?". Ta nik ezetz. Nik zatitxu beten eskolien barririk ez dot gure bapere. Bastante euki neuen txikitten, ganera lehengo eguneko errematie emoteko. -"Baie, euskerientzako kontue da, ta ikastolak eta eskolak egitteko dirue batuteko..."- Euskeriena ez dakitt, baie eskolak egitteko ez dot dirurik emongo, zertako? Gero koittado koadrila bat bertara eroan deidxen domeka baten egunpasa egitten, pensau bere ez, horko dirue batu eta umieri emon gure dauriena erosi deidxen, ze seguro eleziñoak-eta egitten daurierenak baño buru argidxegoa daukiela askok".

# GURE BAZTERRAK


## BEGOÑAKO ARNO MENDIAREN TOKI- ZENAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako lurraldearen barruan, Uribarrin, Artxanda mendiaren barrenean, badago kale bat, Arno mendi izena dauana. Hori dala eta, esan geinke beren beregi eta edu-edura joakola izentazinoa kale honeri. Kalea 1962. urtean egin eta bataiatu egin zan. Bada, kalearen izenaren jatorriari jagokon legez, Arno mendia Mutrikuko mendi baten izena dogu. Mendi hori 610 metro garai da, eta Bizkaiko mugan dago. Oso mendi ezaguna da Markina eta Etxebarriko mendizaleentzat. Lea-Artibaiko enparauko mendizaleak bere oso ezagun dabe ha. Urkarregi baserritik gora doan bidea aurrera, Bizkai soloak zehar, bidegurutzera helduko gara; bidegurutze horretan, ezkerretara joan ezker, Orizate-Amulategi basobidera jotzen dogu, Etxebarria zehar joanda Markinako udalerrira heltzeko, baina eskumatar jo ezker, orduan Gipuzkoa aldera jotzen dogu, eta, bidean gora eginda, Arnoate baserrira helduko gara, Elgoibarko udalerrian; handik metro batzuetara Arno mendia ikusi ahal izango dogu, Mutrikuko udalerrian. Geroenean, esan behar dogu, Arno mendiaren kaleak Calixto Legina kalea eta Maurice Ravel etorbidea batzen dauzala.

GOTZON LOBERA REVILLA

## UDALETXEKO ZUBIA, BEGOÑAKO ZUBIA



1925 urtean Begoña eta Deustuko elizateak behin betiko irentsi zituen Bilbok. Orduko alkate bilbotarrak, Federico Moyúak, zubi bana agindu zien herri bioi komunikazioa errazteko asmoz. Ricardo Bastida udal arkitektoari Chicagoko Batzar Eukaristikora joateko proposatu zioten, bide batez Chicago eta Detroiteko zubi mugikorak ikus zitzen. Zubiok cantilever motakoak ziren, beso altxagarridunak, beraz. Artean Areatzako kaietan zama lanetako mugimendua pil-pil zegoen.

1927an alkateak Ricardo Bastida arkitektoari eta José Ortiz de Artiñano eta Ignacio Rotaetxe ingeniariari agindu zizkien zubi bien proiektuak. Euskalduna eta Babcock & Wilcox enpresek eraiki zuten.

1933ko urrian hasi ziren lanak eta 1936ko abenduaren 12ra arte iraun zuten. Handik sei hilabetera, 1937ko ekainaren 17an lehertarazi zituzten zubi biok matxinatu faxisten eraso oztopatzearen. 1941ko ekainaren 19an berriro ere zabaldu zen ofizialki.

Bere beso biak batera irekitzen zituen bakoitzean ikuskitzen jendetsua bihurtzen zen. Eta gainera bere egileen gaitasun profesionalaren neurria ematen zuen. Galibo: 7 metro erdian, 3, 65 metro eskuinaldean eta 4,80 ezkerrean. 49, 60 metro luze zen. 1969an behin betiko lotu zituzten beso biak.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Bbatana Batu Kultur  
Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:

berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega  
**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune  
Berro, Iratxe Ruiz,  
Erdoitza Martínez  
Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso  
Perez, Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde, Igor M.  
de Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola, Iñaki  
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martínez

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.200

## GAZTEDI DANTZA TALDEAREN MENDE ERDIA Santutxuko dantzarion historiak euskal kulturaren ibilbidea islatzen du



1964ko argazkia. Gaztediko dantzariak Leginako txakolindegian.

*Testua: Iratxe Ruiz  
Argazkiak: Gaztedi*

*Santutxu auzoan eta baita Mahatserri osoan ere, 'Gaztedi' dantzari taldea sinboloetariko bat dugu. Auzoan betidanik ezagutu dugun dantza talde garrantzitsu honek aurten berrogeita hamar urte betetzen ditu talde gisa. Aita Txanton Goiriak sortutako taldearen lehenbiziko ekitaldia 1951.ean Zornotzan izan zen. Hortik aurrera kinka larriko urteak eta loraldia sasoiak bizi izan ditu 'Gaztedi'k. Hona hemen mende erdia ospatzen duen taldeari gure onspena, bere historia laburki kontatuko baitugu jarraian.*



**IRUDIA SORTZEN DUGU  
BILBO**

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalla.com  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA  
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIEL ARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA


☎ 94 412 82 74

O.P.E.-0399/97

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da  
ideiak, zureak

Sarean jolasak  
Internet  
Inprimaketa  
Eskanero  
Datu grabaketa...

Aita Pernet, 1  
48004 Santutxu  
Bilbo  
Tfnoa/fax: 94 459 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net



1954ko abuztuaren 15a. Begoñako jaiak

Santutxuko Karmeloko Eleizaren inguruan eta 'Dindirri' taldearen laguntza teknikoaz baliatuz sortu zen 'Gaztedi', Aita Txanton Goiria Karmeldar izanik asmo haren erantzule nagusia. Taldearen lehenbiziko ekitaldi publikoa Zornotzan izan zen 1951eko irailaren 26an, nahiz egun hartan 'Grupo de danzas vascas de la juventud del Carmelo y Praga de Begoña' izen ponpoxoarekin azaldu.

Taldea itxura hartzen joan ahala, bere ezaugarriak sortzen hasi ziren. 1953ean 'Taldea Gazte' izena ezarri zitzaion (ikusten denez, Karmeloko gazteriarekin zeukan lotura bertan islatuz), bai eta gure gaur egungo himnoa sortu ere. Aginte frankistaren esijentzietatik kanpo maiz ibiltzeak (baimenik gabeko ekitaldiak esaterako) hamaika gorabehera ekarri zion taldeari, harik eta 1955. urtearen hasieran aita Txantonek Karmeloko Gazteriatik estatutuak legeztatzea lortu zuen arte.

Dantza talde baterako eta beste zenbait jardueretarako babesa estatutu haietan aurkitzearekin batera, 'Gaztedi' hasi ziren deitzen. Etengabeko lan sakona hasita zegoen ordurako. 'Dindirri' tik etorritako Txomin Unzaluk taldearen zuzendaritza teknikoak 1954.ean bere gain hartu zuenetik ez zen denbora luzean atsedetik izango dantzak eta doinuak ikasteko, jantziak egiteko eta prestakuntza fisikorako zereginetan.

Erronka handiari egin zion aurre 'Gaztedi'k, orduko dantza ezagunenak agertzearekin konformatu ezinean, askozaz ezkutuago zeuden beste asko ikasteari ekin baitzieten. Esan beharrik ez dago garai hartako baliabideak Herriko hainbat puntutara joan behar izaten zen dantzak 'begiz' eta melodiak 'belarriz' ikastera. 'Duguna' izenaz ezaguna zen Iruñeko Udal Taldeari so eginez, eta talde bereko kide batzuen laguntzaz ikasi ziren, esaterako, Luzaide, Lesaka eta Otsagiko dantzak, bai eta 'Larrain dantza' ere, guztiak oso goiz 'Gaztedi'ren errepertorioan sartu ahal izan zituztelarik. Era berean, Iparraldean egiten hasi ziren ekitaldie-

tan profitatzen zuten hango dantza asko, betiere begiz, ikasteko.

#### URREZKO AROA

Honela, sakrifizio eta ekimen handiaz, Gaztedi, maila on bat lorturik, itxura ederreko ikuskizunak ematen hasi zen, zeinetan lan koreografiko propioak ere sartzen baitziren askotan.

Hirurogeiko hamarkada, lehenagoko urte batzuk gehituz eta hamarkadaren azkenak kenduz, izan daiteke 'Gaztedi' ren goreneko sasoia, nolabait esateko. Izan ere, urte haietan izan zituen taldeak maila artistiko gorena eta oihartzun edo begiramen handiena.

Euskal Herriko bazter guztietako plazetan dantzatzeaz gainera, garrantzi handikoak ziren antzokietan ematen ziren ekitaldiak. Taldeak berak antolatzen zituen, karteldegietan beste ikuskizunekin lehian jarritz, gehienetan arrakasta itzelak lortzen zirelarik. 1960. urteaz geroztik ikuskizun hauei 'Eusko Ederti' izenaz esan zitzaizen eta gehienetan Arriaga antzokian izaten ziren. Guztien artean agian azpimarratu beharrekoa da 1964. urtean egin zena, besteak beste bertan aurkeztu zelako 'Gaztedi'k berreskuratu zuen dantza galdu bat: Orioko 'Sorgin Dantza'.

Aldi berean Euskal Herriko mugetatik gaindi ibilera franko egingo zituen taldeak, nolabaiteko ikusmira internazionala erdietsiaz. Aipagarriak dira, batez ere, 1963. urtean Normandian eginiko jira, handik urtebetera Parisen emaniko ekitaldiak, eta 1965. ean Oviedoko VII. Nazioarteko Folklore Jaialdian esku hartzea.

Garai hartakoak dira ere gaur egun hain arrotz egiten zaizkigun dantza txapelketak, hauetariko ospetsuenak Erandio eta Deustukoak zirela. 'Gaztedi'k txapelkun titulua eskuratu zuen aurkeztutako aldi guztietan ( bost urtez Erandion eta bi urtez Deustuan).

Baina ospea eta guzti, lan ez zen eteten, eta esate batera-



Korrikan 1991an

ko 'Gaztedi'ko dantzari askok landatu zituen haziak beste dantza talde batzuk sortzeko. Hala sortu ziren Basauriko 'Indartsu', Galdakaoko 'Andra Mari', Bilboko 'Danok Alai', eta beranduxeago Eubako 'Lagundi' eta Bilboko 'Gorantzak', besteak beste, Dantza kontutik aparte, beste kultur arlotan ere jardun zuen orduko 'Gaztedi'k adibidez, Santutxuko Euskal Eskolaren sorreran 1964. ean.

#### UNE LARRIAK

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran izango zuen hasiera lehenbiziko krisialdiak. Jende gazterik ez zen azaltzen, eta Taldea ahuldu zen. Ulertu behar da tenore haietan mugimendu sozialak pil-pil zeudela. Momentu zailak, dudarik gabe tankera honetako elkarreentzat. Sasoi latzak zireneko adierazle bat izan daiteke 1970. urtean 'Gaztedi' eta 'Gorantzak' taldeek bat egitea erabaki behar izanak. Bat egite horrek, seguru asko, ahalbidetu zuen duintasun handiko jarraipena, nahiz eta luza gabe ezkontza hark porrot egin eta talde bakoitzak bere aldetik jarraitu behar izan zuten.

Bultzadatxo bat etorri zen handik aurrera, berriz ere dantza berriak ikasiz, programa hobetuz, eta taldearen barne giroa berpiztuz.

Erreforma politikoaren hasierako urteak izan ziren bai talde honentzat bai beste askori nola edo halako arnasa eman

ziotenak, askotan uste izaten denaren kontra. Bai, halaxe, 1975etik 1978ra bitarteko urteak benetan onak izan ziren, zeren eta dantzariak ikurrina antzeko elementu omnipresenteak erabiltzeko aukera izan baitzuten. Kontaezinak dira orduan emaniko dantzaldiak, baldin eta kontuan hartzen bada herri festaren berreskuratzea urte haietan ere jazo zela.

Hala ere, behi argalen garai bateko mezulari izango ziren orduko tenore haiek, laurogeiko hamarkada hasi baino lehenik bigarren krisialdi baten hastapenak ikusten hasi zirelako. Eta bigarren hori benetan gogorra izango zen laster ikusiko dugun moduan.

#### LAROGEDIAK

1980 urtetik aurrera ez ziren makalak askoren ahaleginak taldea maila on batean jartzeko. Eta bai lortu ere, baina ekitaldiek ez zuten atean jotzen eta jendea desanimatu zen pixkanaka-pixkanaka. Egiatzki, dantzariak ez zuten jadanik urte batzuk lehenagoko begiramen soziala.

Nolanahi ere, ozta-ozta aurrera egitea lortu zuten eta, arlo batzutan, inoiz baino aktibitate gehiago izan zuten, musikagintza kasu. 1981etik 1983ra trikitixa, alboka, Nafar gaita, Bizkaiko dultzaina, txalaparta eta beste tresna batzuk sartu ziren 'Gaztedi' n, gure musikari taldea oso eza-gun eta txalotua egin zelarik.



Goian: Gaztediko dantzariak Zurbaranen 1978an.  
 Behean: Dantzariak ikurrina eta guzti Donibane Lohitzunen 60ko hamarkadan.

Krisialdia, ordea, ate joka zegoen. Dantzariak apurka-apurka taldea utzi, harik eta 1985ean mutilik gabe gelditu arte. Sekula ez da nahikoa izango orduko nesken taldeen merituen errekonozimendua. Haiei esker, eta gartzetxoekin

gaurko egunetara arte, zeinetan ikusten ari garen denbora berriek ekarriko dituzten erronkei aurre egiteko gai izango den 'Gaztedi' berri bat. Hala bedi!

ari zirenei ere, taldearen bizitza ez zen behin betiko eten.

1987an hasi ziren ikusten berpizkundearen lehenengo seinaleak. Mutil gazteen talde berri batek lanari ekin zion berriz, nesketan belaunaldien erreleboa ondo finkaturik gertatzen zen unean bertan.

Geroztik, astiro baina irmo. Taldeak berreskuratu zituen kalea eta eskenatokiak, berriro ere ekitaldi publikoetan gero eta maizago, gero eta hobeto azaltzeko. 'Gaztedi' ren kimu berria loratzen ikusteak erakarri zuen garai bateko taldekide baterano askoren hurbiltzea, eta belaunaldien arteko topaketa hau izan zen berpizkundearen giltzarrietako bat. Zaharrak eta gazteak elkarlanean aritu izan dira

elkarlanean aritu izan dira elkarlanean aritu izan dira elkarlanean aritu izan dira



1953ko azaroaren 15a. Dantza agerraldia Karmelo plazan.

## OSPAKIZUN EGITARAUA

**50. URTEURRENA** ospatzeko erarik hobereena dantzaldiak antolatzea da eta halaxe egin dute. Martxoan, haur eta gazteen folklore jaialdi ospatu zen Pasai Antxoko 'Alkartasuna Txiki Dantza Taldea' gonbidatu zutelarik.

-Euskal Herriko zazpi herrialdetako dantza jaialdia' ekainaren hamarrean izango da Euskalduna jauregian. Bertan Euskalerriko zazpi probintzietatik gerturatutako dantza taldeek hartuko dute parte.

-Hil bereko 23.ean kurtso amaierako jaialdia

egongo da Etxebarriako Hockey pistan, Benicassim-eko 'El Cremaller' taldearekin.

-Uztailaren 21.ean 'Elai Alai'k antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duten du 'Gaztedi'k beste hiru taldeekin. Ekitaldi hau Santutxuko jaien egitarauaren barne kokatzen da eta Hockey pistan izango da.

-Azkenik, Azaroaren lauan, Gaztediko belau-naldi guztien ikuskizuna izango da. Ikuskizun hau lehendabizi Arriagan eta gero Santutxun errepikatzeko asmoa daukate.

## Bazkide txartela

Izen deiturak:	ENA zenbakia:	
Helbidea:	Herria:	Posta kodea:
Telefonoa:	Lanbidea:	Jaioteguna:

**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA  
Iturriaga 55 1.Ezkerrean 48004 Bilbo  
Telefonoa: 94.47354.48  
E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota:

Bazkide soila

Ekintza jakinetan laguntzaile

Lantaldeko partaide

Ordainketa:

Kontu korrante bidez

Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071.105864.2

Kuota korrante bidez

500 pta

1000 pta

2000 pta

pta


# Begoña eta Euskerea

Joseba Etxebarria

## Matzerri herriko mobidea: San Isidro eta Sindikatua ("El ambigú")

Gure mahats asko egoan herri maitean baegoan mobidea, tabernak eta ambientea... terriblea gainera.

Kontua zan alde batetik gizonetzokak Bilbon bearrean egiten zeuriela eta bestetik ortuko zereginekaz (hemengo maiu-kiak eta letxuagak, besteak beste, oso famatuak ziran Erriberako Merka-



Begoñako aurrekuaren argazki historikoa

tuan eta Bilbo osoan) dirutxu bat sartzen zala gure baserrietan eta bere zati bat busti eiten zan ardotan eta farretan. Geien bat domeketan, baie astean zear be Bilbotik, bearratik bueltan, txikitoren bat edo jausten zan Matiasenean, Leonorren tabernan, Maipun edo ta Sindikatoan. Azkenengoa (1922-1984) ate ondoko hormako harrian "Lur-langileen etxea" grabatuta eukan arren Sindikatu berbaz ezagutzen zan. Oso famatua zan Begoñako baserriarren artean, batez be oingo sasoiari, izan be Maiazaren 15an euren ospakizunik eta handiena eiten zan, Andra Marirena baino potenteagoa: San Isidro eguna

### SINDIKATUA

Eguna bertan Sindikatoan hasi egiten zeurien: Goizeko hamarretan estandarte atara eta eleizaraino eroaten zan desfilean: aurretik txistulariak, guarda jurauak, bi lerrotan danak zinturoia eta eskopeteagaz, alkartearen ikurriña edo estandarte eta atzetik beste guzti-guztiak. Egun horretan baserriarrek Bilboko edo dana dalako lantegian jai hartuten zeurien, bere patroia bear dan moduan omentzeko.

### PATROIA

Eleizara hamabietarako heldu, mezea entzun eta gero Santua, San Isidro, baserriarren patroia, atera eiten zan, bere

hartu ta basilikari buelta oso bat emoten zan, urten eta portiko aldetik hasita, ...atzenean sartu eta gorde barriri, beren beregi basilikan eukan txokoan.

### ESTANDARTEA

Santua Amatoaren zaintzapean segurua itxi ostean barriz atera eiten ziran elei-

zatic, estandarteagaz, eta atzeko plazara joaten ziran, bera orduntxe "Begoñako Errepublikako plaza" zan, danok suposatuko dozue nozarte eta zergaitik aldatu eiotsien izena. Egon be bertan egoan, alboko eskilara batzuen ondoan udaletxea edo "Errepublikako etxea", geroago eta Santo Domingorako karreterarako obrak egin artean eskola publikoa izan zana, gure "...aren sasoiari jakina. Bertara heldu eta oiturea jarraituz "Begoñako aurreku" dantzatu eiten zan, dantza hori erdi galdu egin da, baie laster Txelu Etxebarria txistulariak argitaratuko dauan liburuan berreskuratzeko moduan izango gara, argazkian ikusi eiten da orduko giroa, aurrekulari eta atzekulariaren artekoak ez ziran, antza, autoridadeak edo jende zeatz bat izan bear.

### BEGOÑAKO ERREPUBLIKAKO PLAZA

Aurreku amaitu ostean desfilea Sindikatura joaten zan bazkaltzera, bertan egoten ziran zain auzoko neskatxiek dotore dotore jantzite, amantala zurie ipinite, ... egun horretan zerbitzari einde. Arratsaldean, bazkaldu ostean, erromeriara joaten zan, Begoñako plazara, itzela izaten zan, musika banda eta guztiz, kategoriakoa, baten batzuek bertan gelditzen ziren, Sindikatoan, gustora berbaz ala altxau ezinik sillatik.



San Isidro egunien estandarteagaz.

Bazkarie oso ona: danetarikoa, genero ona, oso ondo prestaute, kantidadean, .. eta garrantzi handiko ekintza soziala, izan be bazkarie bakarrik zan bazkideentzako, ta kooperatiba berak be zati bat pagatzen eban, estandarteak debalde eukan, ez eban txakur txikirik pagau bear. Bazkarie merienda ta afarie izaten zan ze, sobrau eiten zana bertan amituten zan.

Hori bai, bertako baserriar guztiak batu eta elkartu eiten ziran, danak, baten bat faltau bazan derrigorrezko arrazoiaren bat izaten zan, oso zita sakratua zan eta egun horretan faltatea gogorra...

San Isidro beraz egunik eta handiena Matzerriko baserriarrentzako, prozesioa, aurreku, bazkaria ...eta bertakozat bakarrik, "ambigú" berbak hori esan gure dau, taberna baine bazkideentzako, eta hori zan tabernak eukan permiso mota ofiziala.

Tabernak kasino itxure eukan: handie, zabala, altue ta argitasune barrutik, egurre ilune hormetan metro ta pikoko altueraraino edo ipinite, marmolezko maiak, aintzineko silleak ta jentea kartetan, azkenengo txokinoan komune eta alboan barrea, txikia bera.

### EDIFIZIOA

"Lur-langileen etxea" edo Sindikatua edifizioa (1922-1984) oingo Tortillan ia bertan egoan; Carretera Generalatik Zabalbide hartu ta segidoan daoz bi platanondo nagusiak, orduko arbolak eurak kasualitateaz edo salbaute, ba .. gorago egoan "Sindicato de Labradores y Ganaderos de Begoña" edifizioa (oin be ba dago etxe erraldoi bat), etxebizitako goiko bi plantetan jendea bizitzen zan, pisuak, baine lenengo ta beko parte "Cooperativa Agrícola Ganadera de Begoña-Caja Rural"-k eukazen hartute, bata taberna ta lokalak ta azpien almazena, andie bera: saku iladak terribleak, punta batetik bestera, alturean be ia zeruraino, pentsuak (okelabakoak fijo), zerealak, .. eta potinge kimi-

koak albo batetan, karakolak erretzeko, tomateak zaintzeko.. katuek saku tartean ostondute, zain, eta Gurtubai ezkina batean, bere txokinoan sartute, dana apuntatu eta kobratu, anteju gaintetik begire, sartu ta urten bitartean bedar siku, solba ta abarren perfumea sudurren inkaute eta kanpoko partean astoak lotzeko burrinak eguzkiak gori gori berotuten.

Alkartearen jatorria antzineko baserriarren arteko "porreta" deiturikoan dago, antza handik sortu zan geroago "Cooperativa Agrícola Ganadera de Begoña", diru elkarte moduan, geroago etorriko da "Cooperativa Agrícola Ganadera de Begoña-Caja Rural" izena, Zabalbiderako partean horman, harrian, grabatutata egoana, baite "Caja Rural" bertan egotea, ofizinak ta hiru bat beargine, hori egoan sartu ta ezkerretara egurrezko manpara handi moduko batzuen ostean.

### KARTILLEA

"porrete" XIX. mendetik etorren oiturea zan: abere edo ganadun baserriarrek diru bat ipinten zeurien, kuota fija barik bakoitzak gure edo ahal zeuena, hori kantidaea hilerro edo batu eiten zan, baita gorde eta abar: administradorea, kontuak, ...XX. mende hasieran Txabola baserrian eiten ziran bilerak dirua batu, argitu, diskutidu, tratatu ... Helburu eta arrazoia, hasieran, elkar laguntzea zan, baten batek beia alpertz gero, hil ala gaixotu eta hil bear, ... galduz gero porretak diru bat emoten eiotsion, orduko denboran famili batentzako ondamentia zan abelburu bat galtzea eta porretak emandako dirua laguntza handia zan aurrera ateratzeko.

Gero elkarteak galdutako animaliaren okela saldu eiten eban, zatike eta enkantean, zezina edo egiteko, eta auzoko jendeak erosi, hau "errematea" deitzen zan. Esan daigun Porretak erosi eiten ebala galdutako animalia eta baserriarrek bere burua salbau eiten ebala.

# Irratia.com, euskara, irratia eta internet lotuta daude

## Bitarteko tekniko gutxi batzuek zazpi irrati kanal jarri dute interneten entzungai



**Euskarazko irratiek badute euren txokoa interneten, "Irratia.com". Bertan zazpi kanal entzun daitezke gaur egun eta, gauzak ondo, gehiago izango dira laster. Euskarari, musikari, irratigintzari eta kulturari bultzada eman nahian hiru gazte internetzale amorratuek indarrak batu eta azarotik hona euskal irratia sarean dago.**

*Testua: Hektor Ortega*

Irratia.comek ez dauka instalaziorik. Ez estudio edo antenarik. Ez dago leku fisiko batean. Ezin da ikutu. Baina izan, bada. Izena duen guztia bada, dio esaera zaharrak eta, kasu honetan behintzat, holan da. Munduko edozein bazterrean, ordenagailuan irratia.com interneteko helbidea sakatu eta zure begien aurrean agertuko da. Euskaraz ez dakienak "Basque radio station" adituko du eta ingelesezko aurkezpena topatuko du. Zuri, irakurle euskaldun hori, aukeran zazpi kanal eskainiko dizu: kanal nagusia, bigarren kanala eta musika estiloei eskainitakoak -elektronik, txosna-rock, ska eta reggae, eta trikitixa-. Hortaz gain, Gasteizko Hala Bedi irrati librearen emisioak zuzenean.

Eta hori guztia gutxi balitz, Hitz Egin sarean. Azken hori Ipar eta Hego Euskal Herriko hainbat irrati euskaldunen arteko akordio baten emaitza da. Emisora bakoitzak noizik behin programa bat egiteko ardura hartzen du. Horrela, horra jotzen duenak Irulegiko irratia, Gure Irratiak eta abarrek egindako saiok entzun ditzake.

"Guk proiektu honetan hogeita mila pezeta ere ez dugu gastatu", azaltzen du Patxi Gaztelumendik, irratia.comeko bultzatzaileetarik batek. Harekin

batera Jabi Zabala eta Koldo Alonso aritu dira web orria prestatzen, domeinuak lortzen eta Estatu Batuetako zerbitzari baten zerbitzuak erdies-ten.

### IRRATI BIRTUALA

Zelan dabil, orduan? Internetez ezer gutxi daki-gunontzat misterioa dira horrelako kontuak. Musika kanal bakoitza "disca-jartzaile" baten ardurapean daude. Hogeita lau orduz emititzen dute aurretik "kargatutako" abesti sorta. Ardura-dunak "jaten ematen dio" bere kanalarik kantak aldatzeko, gehiago sartzeko edota batzuk kentzeko.

Kanal nagusian, oster, musika tarreak eta zuzenean eginiko programak nahasten dituzte. Hauek gutxi dira oraingoak. Esate baterako, asteazkeneko, iluntzeko bederatzietan "Jalgi hadi dantzarat" musika irratsaioa lau haizetara zabaltzen dute. Emisioak Bilboko irrati batzuetako estudioetatik egiten dituzte, Bilbo Hiria Irratia eta Mahatserriko Tas-Tas irrati kasu.

Bigarren kanalean egunokaz -maiatzaren 25-Nafarroako irrati euskaldun txiki batek eginiko irratsaio eder eta interesgarri emititzen da behin



**"Internet bidezko irratia ez digu ia diru inbertsiorik eskatu"**

eta berriz. Basaburuko Esan-Erran irratia paratutako erreportai dotorea da Lantzeko ihauteri famatuaren inguruan. Miel Otxin eta enparauen notiziak baino lehen Gabriel Arestiren omenezko olerki errezital bat jarri zuten entzungai.

Eta guzti honetaz gain kontzertuak zuzenean ere eman dituzte. Esate baterako Basque Dub Foundationen musikaldia zuzenean jarri zuten maiatzean eta soinuarekin batera "kontzertuaren hamar argazki sartu genituen web orrian. Eta bitartean txatean jendeak bere iritzia ematen zituen; gehienek Gipuzkoatik baina baziren entzuleak Parisen, Londonen edota Argentinan ere", diosku Patxi Gaztelumendik. Kontzertuak ez ezik, EZLNko komandanteek Mexicoko kongresuan eginiko berbaldea bezalako ekitaldiak ere jarri dituzte sarean edonoren esku.

Musika, programak, hitzaldiak eta gainerako edukin guztiak digitalizatu ostean, ordenagailuz zerbitzariari bialdu eta haren bitartez irratia.com sakatzen duten guztiak euskal irratigintza digitalaren eremuan sartuko dira.

### ERANTZUNA

Orain arteko erantzunaz pozarren daude irratia.comeko lagunak. Batetik, "milaka pertsona konektatu dira eta ezagutu dituzte gure edukinak", dio Gaztelumendik. Bestalde, euskalgintza munduaren harrera ere bikaina izan da.



Horren adibide, urtarrilean eman zieten "Argia" aldizkariko saria.

Azken ohar bat. Musikaren kalitatea AM emisora baten modukoa. Gainera, darabilten sistema mota ez ei da grabatzeko batera erraza. Ez dute nahi FM bezalako kalitatea eskaini. Eta ez dute musikaririk internauten eskuragai jarriko aurretik egileekin adostu ez badute. "Euskal musika zabaldu nahi dugu baina ez dugu inola ere eskaini nahi cd baten ordezkoa izan daitekeen ezer", diote.


Berba hauek ez dira ahuntzaren gauerdiko ez-tula. Musikari toki aparta egiten diote eta laster hiru kanal berri gehiago jarriko dute sarean: punk, folk eta heavy musika estiloei eskainiko diete.

**ZURE PUBLIZITATEA**  
**BERTON**  
**94 473 54 48**

**PRESOAK KALERA**  
**AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**

**ADI** Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak**  
**kontabilitatea juridikoa**  
**merkatalgintza**



Euskal Herriko bazter guztien arteko harremanetarako bidea emateaz gain, euskararen mundua zabaldu egiten du interneteko irrati-gintza. "Orain artean EITB, egunkaria, aldizkari batzuk eta tokian tokiko komunikabideak euki ditugu. Hemendik aurrera muga guztiak apurtuta daude", argitzen du Patxi Gaztelumendi. Muga gainditzearena ez da bakarrik euskararako. Komunikabideek izen mereziko badute

IRRATIA.COM PROIEKTUAREN sustatzaile Patxi Gaztelumendik nabarmentzen duenez, "Euskal Herrian badago teknofobia apur bat baina gero hau bezalako ideiak hurbiletik ikusten ditugunean interesa pizten digute". Izan ere, irratia.com bezalako bitarteko batek aukera itzelak edegiten ditu. "Laster batean hiru kanal berri jarriko ditugu, hirurak musikalak, eta nahi beste ipini ahal dira. Proiektu irekia da. Behar dugun bakarra da kanala 'elikatzeaz' arduratuko den pertsona bat", dio Gaztelumendik. Hemen entzun ezin ditugun emisorren berri izateko ere bide egokia izango da irrati.com, "eta kontutan hartu behar dugu, esate baterako, Iparraldeko irratiak hemengoak baino aurrerratuago daudela hainbat alorretan".

emititzaile eta hartzailearen artean harremana sortu behar zela zioten aspaldiko teoriko ezkertiarrek. "Internet bidezko irratiaren entzulea izan daiteke kanal baten arduradun edota, pasatu zaigun bezalaxe, elkarrizketa baten erdian txataren bidez galderak bialtzea. Betiko ereduak apurtu egiten dira", dio Gaztelumendik.

Bide horretatik feed-back fenomenoaren errazago gerta daiteke eta entzuleei euren pasibotasunetik ateratzeko bidea ematen die. Izan ere, bultzatzaileek ere dioten legez, "irrati.com proiektu irekia da eta parte hartu nahi duen jendeari hainbat aukera eskaintzen die".

e  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a

# Estitxu Arregi

"Euskaldunoi beti gustatuko zaigu kantatzea"



Testua: Iruñe Berro Urrizelki  
Argazkiak: Iñigo Azkona.

Bizitza osoa musika eta kantagintzari eman dio Estitxu Arregik. Familian txiki-txikitatik arnastu zituen doinuak, ahots ederrak, musika notak eta abestiak. Geroago Bilboko Kontserbatorioan irakasle eta Euskaria abesbatzan zuzendari aritu da. Gaur egun ere hortxe dihardu. Urepeleko artzain famatuaren berbak egokituz, Estitxu Arregirena odolaren kantua dugu.

## ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org





*“Euskeria  
abesbatzaren  
errepertorio osoa  
euskara hutsez  
dago”*



**Hamar urte daramatzazu Euskeria abesbatzan zuzendari modura baina bertara iritsi aurretik zelan gogoratzzen duzu?**

Abesten nuenean? oso ondo. Nik txikitatik abestu izan dut. Nire amak erakutsi zidan eta orain "niña prodigio" izango litzatekeena nintzen ni garai hartan baina abesten bakarrik, beste gauza batzutan ez. "La tabernera del puerto" (gorgoritoekin eta guzti) eta horrelako kantuak abesten nituen; gauza arraro bat nintzen. Orduan, ni ez naiz gogoratzen baina hainbatetan esan didate, bost urte nituela irratitik deitu eta bertan abestu nuen. Lehiaketa bat zen eta beste neskato batzuekin batera finalista aukeratu ninduten. Kontua izan zen finalerako deitu nindutenean gaixo jarri nintzela eta hortxe amaitu zen nire irratiko abentura. Hala ere, nik abesten jarraitu nuen. Beti nengoen abesten. Ondoren zertxobait

hazi nintzen eta nire nebak Congregación Javier zuzentzen zuen eta ama ere bertan zebilen; beraz, nik ere hor amaitu nuen. Hortik San Antonera eta ondoren eta azkenik Euskeria abesbatzara.

**Egutegi finkoa al du Euskeriak? Hau da, bala dago data edota ekimenik non Euskeriaren presentzia segurua den?**

Gu presoan alde hasi ginen abesten. Beno hasi zirenean ni ez nengoen oraindik gure abesbatzak urte asko dituelako. Ez naiz zehazki gogoratzen baina XX. mende hasierakoa da. Kontuak kontu, egun presoan alde abesten dugu; dirua bildu eta beraiei ematen diegu. Bestetik,

BAEn (Bizkaiko Abesbatzen Elkarte) sartu ginen eta orain urtero horren barnean abesten dugu lau egunez. Deituez gero ere, herrietako jaietan abesten dugu edota ekitaldiren batetarako deitzen gaituztenean. Laburbilduz, presoan alde eta gure herriko kulturaren alde egiteko abesten dugu eta data zehatzik ez badugu ere, aipatuetaoetan ibiltzen gara.

**Abesten dituzuen kantuak ezagunak dira ala konpositore lanak egiten dituzue?**

Guk bakarrik euskaraz abesten dugu. Hemengo abestiak normalean eta letra gaztelerez edo baldin bada guk euskaratzen ditugu. Gabonetako abestiak adibidez asko ez dira hemengoak, Mendelson-ena eta abar... eta guk horiek euskarara itzultzen ditugu. Esan bezala beraz, abesten ditugun kantetariko asko ezagunak dira baina baditugu beste batzuk nik eginak.

**Kontserbatorioko irakaslea zara, zer moduzko kantera dago?**

Bai, bai, irakaslea naiz. Jendea pozik egoten da kontserbatorioan abesten. Gertatzen da ere batzuk oso gaztetxoak direla, ez dute aukeratu bertan egotea eta ez zaie batere gustatzen. Horiekin ez dago zer egiterik; hala ere, lehen esan bezala, badaude beste asko izugarri gustatzen zaiela abestea. Nik korala ematen dut eta nire ikasle asko koroa sortu izan dute kontserbatorio barruan eta ondoren jarraitu. Gainera oso abesbatza ona da.



Neba San Antoneko koruko zuzendaria zenuen, aita ere musikaria eta amak berriz, zuk bezain ondo abesten omen zuen. Esan daiteke beraz, musikaren kontu hau odolean daramazuela? Jarraitu dute zure semeek ohitura hori?

Bai. Ama Orfeon Donostiarrako abeslaria izan zen, solista gainera. Nire semeek, denek daukate oso entzumen ona baina ez diote ohiturari jarraitu. Baina beno, badago hortik norbait jarraitzen musika aldetik...nire iloba batzuek horretan dabilta; Txatunga Benbe perkusio taldean.

**Askok Euskal Herriko ohiturak musika gabe ulergaitzak direla diote; hau da, uztartuta daudela eta ez dagoela bata bestea barik ulertzerik. Zu ere uste berekoa al zara?**

Bai, nik ere halaxe uste dut. Iruditzen zait euskaldunoi beti gustatu egin zaigula abestea eta dantzatzea. Herri guztietan gertatuko da agian, baina hemen ohitura handia egon da horretarako, zaletasun handia. Ez dakit zergatik izan daitekeen hori baina hala dela uste dut. Hala izan dela eta hala dela uste dut gaur egungo gazteei, adibidez, nahikotxo gus-tatzen zaiela pentsatzen dudalako.

**Ahotsa lantzeko formula magikorik?**

### HAMAR GALDERA LABUR

**Janari bat:** piper orlegiak  
**Euskal Herriko bazter bat:** Butron inguru  
**Izen bat:** Olatz  
**Amets bat:** Gure herria libre izatea  
**Liburu bat:** El más grande

**Filme bat:** Pretty woman (inpaktatu ninduen)  
**Abesti bat:** Oinazez  
**Doinu bat:** Hegoak  
**Abeslari bat:** Plácido Domingo eta Caballé  
**Data bat:** ez daukat

Bai, noski. Formula hau ere ahomoteleiri irakasten zaie ere. lehendabiziko kontua da norantz zuzendu behar den aho-tsa eta ondoren haizea nola atera. Zuzendu, ahorantz eta eztarrirantz zuzendu behar da.

**Bilbo erdian jaiotakoa zara baina ezkondu zinenetik Begoña eta Garaizar parte honetan bizi izan zara; hortaz, pentsatzekoa da inguru honetako aldaketa askoren lekuko izan zarela. Zein da gehien nabarmenduko zenukeena?**

Bai, hogeita hamaika urte dira hemen bizi naizela eta hona etortzean, Garaizarrera, hiru bloke baino ez zeuden. Beste guztiak etxe txikiak eta baserriak ziren, zelaiak eta txakolin-degiak. Nire semeak beti egon izan dira hemendik landeta-tik zehar eta Santutxura joaten ginenean menditik hirira gin-doazela ematen zuen. Kezkatuta ibiltzen nintzen ea errepi-dera irtengo ziren edo, hemen apurtxo bat salbaje ibili dire-lako. Hala ere, gaur egun ere Santutxu eta Txurdinaga bi mundu desberdin direla uste dut nahiz eta Txurdinagako biztanle kopurua orain nabarmen hasi den. Lehen super-merkatu bat genuen hemengo etxetxoentzat eta hiru bloke-entzat eta horrekin moldatzen ginen. Orain supermerkatu handi horietariko bat ere dugu.

# GORPUTZA PRESTATZEN

## AL DUZU UDARAKO?

**IKER (SANTUTXU)**  
Ez. Nire gorputzarekin pozik nago



**JOANA (TXURDINAGA)**  
Bai. Gorputz ona lortu behar dot udarako, badakizue... bainujantzia jartzeko.



**JOSU (SANTUTXU)**  
Ez, ez dudalako nahi. Beno... agian pixka bat argaltzea ez legoke gaizki.



**ANA (SANTUTXU)**  
Ez, uste dot orain ezinezkoa dela ezer egitea, urte osoan egin behar baita



**MIKEL (SANTUTXU)**  
Ez. Lelokeri bat iruditzen zait; lodi bana-go... urte osoan lodi.



**MARIBEL (SANTUTXU)**  
Ez, nik lanerako denborarik baino ez dut



**JON ANDER (SANTUTXU)**  
Bai, baina ezer berezi-gaitik... gainera nire neskalagunari ez zaio inporta.

**MARIFE (SANTUTXU)**  
Prestatzen?? Ez, ez...benetan ezetz



A  
K  
K  
A  
R  
K  
A  
K  
A  
K

B  
E  
T  
A  
N



## Ibilaldia'01, geroa gure artean dago

**Bilboko auzorik erdaldunenean loratu da aurtengo Ibilaldia. Ibaizabaleko ibarrak milaka euskaltzaleren billtoki bilakatu dira geroa hemen dagoela ozen aldarrikatzeko. Europako hizkuntzarik zaharrenak etorkizuna baduela eta hemen sortuko dela lau haizeetara zabaltzeko.**


Mezu horren esanahia bikoitza da. Batetik, hur-hurretik begiratu-ta, Abusuko kasua azañ lezake Ibilaldia'01eko leloak. Bilbo bazterreko auzo erdalduna da. Hurrengo urteotan inguru horietan -Mina del Morro, Miribilla, ...- 5.000ren bat etxe berri egitekoak dira. Horrek ekarriko du populazio hazkunde nabarmena, jakina.

Eta hortxe, ibaiaren ondo-ondoan, Bizkai-ko lehen fabrika izan zenaren hormen artean ikastola txiki bat sortu zen orain bost urte. Abusu ikastola-koek eurek aitortzen dutenez, "orain hogei-ta hamar urte bezala-

xe, irakasleen eta gurasoen militantismoari esker ari gara ikastola aurrera ateratzen". Euskararen hazia, beraz, gutxi batzuen ahalegin eskergari zor zaio. Eginahal horrek badakar saririk, hala ere. Gaur egun ikastolan 216 ikaslek dihardu Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ere abian jarri berria dute. Eta euren ikastola historiko ederrak badu 500 ikaslerentzako tokia. Auzoaren hazkundeari behar bezala erantzuteko moduan dago ikastola txikia.

## EUSKARA HIRIETAN

Hemen da geroa, zioen Ibilaldiaren leloak. Eta zentzun bikoitza. Bigarren adiera orokorragoa izan liteke. Hemen hori hiriari Bilbo osoari, Euskal Herriko hiriburuei begira esan daiteke. Orduan mezuaren aldarrikapena euskararen etorkizuna herri txiki eta baserri- atxikiturik ikusi beharrean, hiri handietan ere zabaltzean datza. Beharrezkoa dela gure hizkuntza



Abusuko Ikastola

bazter guztietan bizi-bizirik egotea baina irabazteko dagoen alderdia hiri populatuena dela.

Eta mezuak berak dioen legez, geroa hemen da, alor horretan ere euskaltzaleon grinak eta adoreak urrats handiak eragin dituztelako. Ondorioz, Abusun eta Bilbo osoan ume gehien-gehienak euskaraz ari dira ikasten, euskaraz jasotzen dute munduaren berri. Horregatik esan genezake geroa hemen dagoela, gaur egungo umeengan. Bilboko aurrematrikulazio datuek ez dute duda izpirik ere lagatzen. Deustualdean irakaskuntza publikoan A erdua desagertzen hasia da. Beste hainbat auzotan gaztelania hutsez ikasteko eskariak hainbeste urritu dira ezen gela bat osatzeko adina ikasle batzea ezinezkoa den.

Horregatik, hemen da geroa. Eta orain arte legez, euskaltzaleen jarduna ezinbestekoa izango da etorkizun horrek aspaldian amestutako emaitzak ekar ditzan.

## Otxarkoagako auzoek Diputazioak saihebidia eraikitze "iruzurra" egin izanaren probak dituztela diote

Foru arduradunek errepide berria berdegunerako gordetako lurretan egin ei zuten

Otxarkoagako auzo elkartearen (AFO) eta Diputazioko arduradun nagusien arteko afera berrikuntzak sortu dira azken egunotan. Auzoek jendaurrean esan dutenez, foru agintari-ek saihebidia eraiki ahal izateko "iruzurra" egin izanaren probak lortu dituzte. Jakina denez, AFOk salaketa jarri zuen auzitegietan Diputazioak saihebidia berdegunetarako gordetako lur eremuetan egin zuelako. Otxarkoagako iritzi-za, baimenik gabe aldatu zuten esparru horietako kalifikazioa. Orueta eta Ibarsusi bitarteko errepide berriaren historiari ez du amaierarik. Obrak egiten hasi zirenean birritan geldiarazi zituzten auzitegiek, auzoek jarritako salaketak tarteko. Izan ere, AFOk orduantxe argudiatu zuenez, saihebidia Bilboko Udalak berdegunetarako gordetako lurretan eraiki nahi zuen. Azkenean lanak amaitu ziren eta 2000ko uztailaren 14tik aurrera autoentzatz edegita dago. Baina, esanguratsua da oso, ez zen ezelango inaugurazio ofizialik egin. Auzitegietan aurrera joan auzoek jarritako salaketa eta hauek gero eta agiri gehiago eraman dituzte epaileengana.

Oraingo nobedadea txosten baten "agerpena"ren eskutik etorri da. Orain arte Diputazioaren bertsio ofiziala zen beharrezko aldaketak 1994ko ekainean sartu zirela. Agiri berri honek erakusten duenez, urte hartako udaberrian Diputazio-ak egin zuen azkeneko proiektua izango zena. "Gero Bilboko Plan Orokorrean sartu zuten baina ezelango tramitazio

administratiboa egin barik", salatzen dute auzoek.

## INPOSAKETA

AFOren ustez, Diputazioak "bere gustuko bidea ezarri zuen, indarrean zegoen araudi eta legedi oso-osoari jaramonik egin barik". Auzoen salaketak EAeko Auzitegi Gorenean daude gaur egun. Horregatik, Otxarkoagako biztanleon iritzi-za Diputazioko arduradun nagusiek, beren-beregi Herri-Lan eta Garraio saileko buru Jose Felix Basozabalek, herritarren aurrean azalpenak eman beharko lituzkete. "Bada garaia gurekin eta komunikabideen aurrean eztabaidan aritzeko. Irregularitasun hauen aurrean euren iritzia agertu behar dute", diote.

Orueta eta Ibarsusi arteko errepide zatiari "Otxarkoagako saihebidia" ere esaten zaio. Izatez, Ekialdeko saihebidia-aren bigarren zatia da. Lehenengoa San Adrian eta Miraflores-eko ganaren artekoa izan zen, zubi erraldoia tartean zela. Zati honek ere auzoekiko arazoak eragin zituen, San Adrian-eko etxebizitza batzuetatik foru araudik berak ezarritako 35 metroetatik baino hurrago zegoelako.

Bigarren zati hori egin eta gero Ekialdeko saihebideari erdi-ko tramo baina ez zaio falta. Horrek Miraflores gana eta Ibarsusi lotu behar ditu, Ibaizabal birritan zeharkatuaz. Hala ere, zati hori ez dago hurbileko proiektuen artean.

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

DAYTON

Kanpoko garagardoak  
Ronak eta txokorrak aukeran

[www.bilbaoweb.com/dayton](http://www.bilbaoweb.com/dayton)


ekilore

Iturriaga, 92

Santutxu

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



SANTUTXU SPORT

# EAJ-EA koalizioa garaile gure artean maiazeko hauteskundeetan

Otxarkoagan izan ezik Ibarretxerena auzo guztietan lehen indarra izan zen

EAJ eta EAren arteko koalizioa Begoñako eleizate zaharreko eremuan nagusi atera zen maiatzaren 13ko hauteskundeetan. Gure bazterrotan Juan Maria Atutxa buru zen zerrendak 28.600 boza jaso zuen. Bigarren indarrak, PPK, 20.500 lagunengoa hartu zuen. Auzorik auzo, EAJ-EA koalizioa bazter guztietan garaile dugu, Otxarkoagan izan ezik. Hor PSOEk bere ohiko nagusitasunari eutsi zion.



Mahatsorrien bozak gehien bat EAJ-EA koalizioarentzat izan ziren maiatzaren 13an. Ibarretxeren kandidaturak ohi baino askoz alde handiagorekin irabazi zuen gure auzoetan. Danetara 28.576 boto lortu zuen Begoña, Uribarri, Otxarkoaga, Txurdinaga eta Santutxu-Boluetan.

Babes horrekin bigarren indarrari alde handia atera zion koalizioak. Mayor Orejaren aldekoek 20.449 boza erdietsi zuten bazter mahatsorrietan. Hirugarren PSOE sailkatu zen, 16.414 pertsonen sostenguari esker. Lauugarren IU -Madrazoren aldekoek 4.794 boza jaso zuten- eta azkena EH, 4.667 lagunengoa babesaz.

### AUZORIK AUZO

Alderdion indarrok ez dira leku guztietan antzekoak izan. Joerak bai baina tokian tokiko errealitateak ere bere pisua dauka. Horrela, EAJ-EA koalizioa auzo guztietan -Begoña, Txurdinaga, Uribarri eta Santutxu-Boluetan- irabazle izan da. Salbuespena, ohi bezala,

Otxarkoaga izan da, bertan PSOEk beste behin bere sustraia erakutsi zuen eta.

PPk, bere aldetik, emaitza onak lortu zituen edonon, baina beti EAJ-EAren zenbakietatik urruti. Begoña auzoan, hala ere, 28 bozen alde baino ez zion atera Atutxaren zerrendak. Duda barik, horixe izan zen gure artean lortutako emaitzik onena.

Azkena ez izateko lehian, IUk EH baino boto gehiago atera zuen Begoñan eta Uribarrin. Ezker abertzaleak, ostera, aurrea hartu zion Santutxu-Boluetan, Txurdinagan eta Otxarkoagan. Hala ere, Bilbo osoan legez, EHren emaitzak kaxkar-kaxkarrak izan ziren.

Indar politikoak multzoka hartuz gero, Espainako konstituzioaren aldekoek -PP eta PSOE- 36.863 boza lortu zuten gurean. Autodeterminazio eskubidea espreski euren programan sartu zutenek -EAJ-EA, IU eta EH- 38.000tik gora lagunengoa babesaz jantzi ziren maiatzaren 13an.

	BEGOÑA	URIBARRI	OTXARKOAGA	TXURDINAGA	SANTUTXU-BOL
EAJ-EA	1.505	10.674	1.768	4.066	10.563
PP	1.477	7.752	1.623	2.776	7.821
PSOE	1.116	4.663	2.243	2.422	5.970
IU	321	1.765	386	674	1.648
EH	265	1.408	395	679	1.920

# Auzo askok eskuko telefonoentzako antena gehiago ez jartzeko eskatu dio Udalari

## Besteak beste Uribarri, Tutulu, Begoña, Zurbaran eta Azurlekuko biztanleek esijitu dute

Begoña, Tutulu, Azurleku, Zurbaran eta Uribarriko auzoek, Bilboko beste bazter batzuetakoekin batera, patrikerako telefonoentzako antena gehiago jartzeko baimenik ez ematea eskatu diote Udalari. Bilboko alkate Iñaki Azkunak (EAJ) horrelako erabaki bat hartu aurretik txosten juridikoa agindu die udal legegizoneri.

Mahatserriko ordezkariak ez ezik, maiatzaren 17an Bilboko Udaletxean Errekalde eta Iralako auzoak agertu ziren. Toki guzti hauean arazoak sortu dira etxeetako teilatuetan saketako telefonoentzako antenak ipini direlako. Auzoek ez dituzte nahi euren etxeetatik hurre, osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeelakoan daude eta.

Auzoen eskariari babesa emanez EH eta IUko udal taldeak agertu ziren. Bi alderdion ustez Udalak behingoz arau eza konpondu behar du eta behar bezalako ordenantza osatu. Bilboko Udalaren arabera, gaur egun 95 dira mota honetako antenak udal baimenarekin jarriak. Auzoek, ostera, hiri osoan 180en bat direla pentsatzen dute. Alkateak, bere aldetik, ezelango erabakirik hartu aurretik udal zerbitzu juridikoen iritzia jakin nahi duela esan du. Horregatik, txostena eskatu die. Udal abokatuen iritzia, diru-



dienez, antena hauei muga jartzearen kontrakoa izango da, gaur egun ez baitago horrelakorik egin ahal izateko legegiorik.

Martxotik hona han eta hemen hasi dira auzoen kexak euren etxeetan saketako telefonoentzako antenak jarri direlako. Azurlekuko auzoek egunero egin dituzte mobilizazio zaratatsuak, lapiko eta turutez horniturik.

## Artxandako tuneletako lanetan leherketa gehiago egingo dituzte

### Haitzaren gogorrak obrak atzeratzen dituela argudiatzen du enpresak

Artxandako tuneletako lanak zer esana ematen segitzen dute. Orain arte segurtasun arazo larriak konpontzeko biderik izan ez eta gainera oraingoan leherketa gehiago egin beharko direla iragarri dute. Inguruko auzokide batzuek baietza eman duten bitartean, berme sorta bat lortu eta gero, beste batzuek ezetzari eutsi diote.

La Salve eta Txori-herriaren arteko tunelen eraikuntza lanek pentsatu baino buruhauste handiagoak ekarri ditu. Martxoaren hasieran sabaia behera egin eta txiripaz hildakorik izan ez bazen ere, azken asteetan haitzaren gogorrak obrak atzeratu dituela jakinarazi du enpresak. Arazo honen aurrean leherketa gehiago egin behar direlakoan daude. Horretarako, Unibertsitate etorbideko auzoekin jarri dira harremanetan. 4. zenbakioek baietza eman dute segur-

tasun berme batzuk lortu eta gero. Ondoko atarietakoek, ostera, ezetz. Leherketak egingo gero, enpresak bizpahiru hilabete irabaziko duela iragarri du. Inguru horretako biztanleak, jakina, lan hauek direla eta etsita daude. Eguneroko goizeko zortzietatik aurrera zarata itzelak entzun behar dituzte eta zer esan obrek dakarten hautsaz. Horretaz gain, orain arteko leherketek ikara eragin dute hainbat auzorengan.

Artxandako tunelak hiruki formakoak osatuko dute. Tunel bik La Salvetik eta Deustuko Ugaskotik Txoriherriko puntu batekin lotuko dute Bilbo. Hirugarren tunela, ostera, La Salve eta Ugaskoren artean luzatuko da. Tunelok erabiltzeko dirusaria ordaindu beharko da. Horrelaxe finantzatu da eraikuntza obra hauek.

## Mahatsorri bat Everesteko tontorrean

Maiatzaren 23an Otxarkoagako Mikel Alvarez mendizalea Everesteko tontorrera heldu zen. Mahatsorria da munduko sabaira igotako lehenengo bizkaitarra. Egun hartan beste bost euskaldun iritsi ziren Everesteko ganera eta biharamunean beste batek lortu zuen. Honez gero hamazortzi euskal herritar azaldu da Himalayako gailur mitikoan.

Mikel Alvarez Adiskidetasunaren espedizioako kide gisa azaldu zen Everest aldera. Talde bereko beste lagun bi, Julen Reke eta Patxi Goñi, gailurrera igo ziren. Otxarkoagako mendizalearen igoeraren berri Gaztela-Leongo espedizioetako eman zuten. Eurretari batek esan zuenez, Mikel Alvarezekin egin zuten topo Lhotseko hormatik jaisten ari zela eta hark ere tontorrera igoa zela jakinarazi zion.

Antza mahatsorriaren walkie-talkie-aren bateriak agortuta zeuden eta horregatik ez zen hagaz barbarik egiteko modurik izan. Hortik etorr zen nahastea. Izan ere, informazio horren ildotik hemen Mikel Alvarezen igoera maiatzaren 24ean izan zela pentsatu zen. Hala ere, geroago baiestu zenez, bezperan heldu zen gailurrera.

Maiatzaren 23a euskal mendizalearen historian letra handiz sartuko den eguna izango da, duda barik. Egun hartan sei euskaldun ailega ziren Everesteko tontorrera, euren artean lehenengo emakumea, Edurne Pasaban tolosarra. Orain arte zazpi nafar, sei gipuzkoar lau arabar eta bizkaitar bakarrak -Mikel Alvarez- egin dute.

Mikel Alvarezek 40 urte ditu eta Everest da bere lehenengo zortzi mila. 1999an Cho Oyu igotzeko ahalegina egin zuen baina ezin izan zuen 7.700 metrotik gorago heldu. Orain arte zapaldu dituen gailurren artean Pamir mendikateko batzuk daude, baita Alaskako McKinley ere

# Euriak ez zuen

## Euskal Eskola Publikoaren jaia zapuztu

"Mugak gaindituz" mezuak milaka lagun ekarri zituen Etxebarriako parkera



Maiatzaren 6an milaka lagun batu zen Etxebarriako parkean "Mugak gaindituz" lelopean antolatutako Euskal Eskola Publikoaren jaiaren hamargarren edizioan. Euria egunean zehar etenik gabe jauzi bazen ere 70.000 euskaltzale agertu zen Begoñako parkera. Basatzak umeen olgetak lohitu zituen baina ez zituen baretu ondo pasatzeko grina. Antolatzaileak, Euskal Herriko ikasleen gurasoen elkarte (EHIGE), eguraldiarekin triste baina herritarren erantzunarekin pozik azaldu ziren.

Testua: J. Gonzalez  
Argazkiak: Iñigo Azkona

Maiatzaren 6ko hitzorduak arazo bi euki zituen. Batetik, Juan Jose Ibarretzek EAEko hauteskundeak maiatzaren 13rako deitu izanagatik Herri Urrats jaia astebete aurreratu behar izan zela. Ondorioz, Euskal Eskola Publikoaren jaia eta Ipar Euskal Herriko ikastolena egun bakarrean egin ziren. Bestetik, eguraldi latza. Goizean goiz euria gogor hasi zen eta ia atsedetik gabe gauera arte horrelaxe mantendu zen. Ondorioz, antolatzaileek egindako ahalegin itzelak ez zuen merezi adinako erantzunik jaso. Hala ere, Euskal Herriko ikasleen gurasoen elkarteak pozik agertu zen emaitzarekin. Izan ere, "eguraldiak

lagundu ez arren milaka pertsonak hartu dute parte jaietan. Egitarau osoa bete da eta bakarrik Beti Jai Alai dantza taldearen saioa gelditu da bertan behera euria dela eta", argitu zuten. Euren kalkuluen arabera, egunean zehar 70.000 lagun azaldu zen Etxebarriako jai eremura. "Euria atertu den heinean gero eta jende gehiago azaldu da", azpimarratu zuten. Beren-beregi iluntze aldeko kontzertuetara -Tapia eta Leturia, Hemendik At, Txapelpunk eta Idi Bihotz- agertutako gazte andana handiak nabarmendu zituzten. Egunean zehar gurasoak ez ezik alderdi politiko batzuetako ordezkariak, irakaskuntza zein gizarte-

ko kideak, euskararen mundukoak, sindikatuak eta abar luze bat Etxebarriako parkera hurbildu ziren euskal eskola publikoari babes eman gurean.

### MUGAK GAINDITUZ

Aurtengo leloak "Mugak Gaindituz" aldarrikatu du. Mugak gainditzea euki dute helburu Euskal Herriko Gurasoen elkarteak. Horretarako, batetik, mugaz bi aldeetako gurasoak elkarrekin bakarrean batu dira (EHIGE). Baina apurtu beharreko mugak, Ana Eizagirre lehendakariak nabarmendu zuen legez, ez ziren horiek bakarrik. Eguneroko bizimodukoak ere -sexuen artekoak, arrazen artekoak, klase eta ahalmen ekonomikoak, pentsamol-



de diferente edo hizkuntzen artekoak- euskal eskola publikoan behingoz gainditu beharrekoak direla eta horretarako jardunean ari direla baiestu zuen.



### ZENTSURARI AURRE EGINEZ

Etxebarriako parkeko jaia izan baino ordu batzuk lehenago polemiketa zabaldu zen. Komunikabide batzuek parte hartzaileen artean Takolo, Pirritx eta Porrotx egongo zirela lau haizetara zabaldu zuten. Segituan, alderdi eta, batez ere, sindikatu batzuek, presio handik egin zituzten antolatzaileek hain elementu arriskuak programatik ken zituzten. Ez zuten lortu. EHIGEk egitarauari eutsi zion. Elkarrekin berak publikoki jakinarazi zuenez, "Gurasoen elkarrekin helburu nagusia Euskal Eskola Publikoaren aniztasuna, ezberdintasuna... aldarrikatzea izanik hemen ez dago bazterketarako biderik". Elkarrekin partaideak ideologia guztietakoak direla gogorarazi ostean, antolatzaileek "Euskal Eskola Publikoa integratzaile, anitz eta demokratiko nahi dugu, beraz festa hau aniztasun horren isla" dela zehaztu zuten.

Jarrera horren ondorioz Bilboko alkate Iñaki Azkunak (EA) eta Hezkuntza sailburu Inaxio Oliverik (EA) Euskal Eskola Publikoaren jaira ez agertzea erabaki zuten. Takolo, Pirritx eta Porrotx, oster, bertan egon ziren, umeen gozagarri.

**Pa...Ya JO TA KE OTXARKOAGA EUSKALDUNDU ARTE**

**OTXARKOAGA**

*Pa...Yak baditu alternatibak*

E  
H  
E  
T  
I  
K  
G  
O  
R  
A

A  
R  
G  
O  
R  
A  
E  
H  
E  
T  
I  
K  
G  
O  
R  
A

## ERETZA (871 M.)

### ZARAMILLOTIK

Balmasedarako errepidetik joanez Zaramillo herrira heltzean "Ato" lantegia ikusten da. Aurrerago, zubia igaro bezain laster, eskuinaldean dagoen kale bakarrean sartuko gara. Plaza ondoan dagoen aparkalekuan utzi genuen autoa (A).


Orain gure ibilbidea oinez hasiko da errepede asfaltatutik. "Basetxeta" kaletik igoaz harrobi handi batera doan errepede gurutzatu eta bidea zementozko pista bihurtuko zaigu. Horrelakoa izan arren, bide polita da, zuhaitz artean doa eta.

Zaramillotik hiru ordu laurden inguru ibili ondoren Saratxo auzora iritsiko gara. Lehenengo etxea Diego Perez de Saratxo eta Barañanorena izan zen. Ondoan brontzezko irudia dago bere oroimenez. Gorago baseliza eta beste etxe batzuk daude. Hala ere, guk aipatu dugun Saratxoren etxea igaro bezain laster ezkerretara joko dugu lurrezko pista zabal batetik.

Aurreratxoago beste baserri bat ikusi ondoren biragune (B) handi bat egin eta orain arteko pista utzita ezkerretatik ekarri duguna baino pista estuago bat hartuko dugu. Hamar minuturen buruan lepo (C) handi batean kokatuko gara. Berton pista asko elkartzen dira. Aurrera jarraitzeko aukera asko dugu, eskuinaldetik, ezkerretik edota zuzen su-ebakitzeko zabal batetik. Azken hori gogorra izan arren laburragoa denez hortik jo genuen. Berrehun metrotara iturri eder bat dago.

Pista nagusia edo beste pista hiru edo lau bider gurutzatuz, igoera hau amaitzen denean harrespil bat dago ezkerretatik (D).

Su-ebaki berberetik jarraituz eta apur batean jaitsiaz, gure aurrean ikusiko dugu azken aldapa gogorra. Hori igotakoan gure Eretzako (871 m.) tontorrean egongo gara. Txartelkuxta txiki bat du eta zerbait aurrerago Soduperantz bideratzen duen burdinazko gurutz itxurako irudi bat.



### DATU TEKNIKOAK:

**IRAUPENA:** Igoera osoa bi ordu.

**ZUHAITZAK:** gurbitzak, gaztainondo, artea, pinua, zilarra, gorostia, haritza eta nekosta.

**OHARRA:** Azken aldapa baino zerbait lehenago aipatu dugun harrespila tumuloa dirudi. Itzultzean beste tumulo bi ikusi genituen. (C) puntuan beti gorantz ekarritako bidetik eskumalderantz doan pista hartuta berrehun metrotara argi indarraren azpian daude "Kanpazaulo" deitutako tumulo bi horiek.


## hartu bertone etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digitu): \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_

Sinadura



# Saioa García, ETBko aurpegi berri bat "Hasiberriak" telesaileko aktorea da begoñar gazte hori

Saioa García, ezagun egingo zaizue asko eta askori, ez da harritzekoa. Izan ere, azken aldi honetan Euskal Telebistako telesail berri batean, "Hasiberriak", ikus dezakegu. Casting gogor eta luze baten ostean bere lekua egin du telebistan eta gauzak ondo nork daki etorkizunean noraino iritsiko den Arbellako neska gazte hori. Oraingoz, jende gaztez osoturiko aktoreen taldean oso gustura sentitzen da. Nahiz eta batzutan lana gogorra izan orain dela pare bat hilabete imajinatuko ez lukeen esperientzia berri bat bizitzen ari da.

Testua: Joana Etxebarria  
Argazkiak: Iñigo Azkona

Aitak ekin izan ez balu Saioa ez litzatekeen casting-era, aktoreak aukeratzeko probara alegia, aurkeztuko. Horrelaxe aitortzen digu Arbellako neska gazte horrek gaur egun ETBko telesail arrakastatsu baten partaide zelan sartu zen galdetuta. "Aita izan zen behin eta berriz joateko esan zidana eta azkenean konbentzitu eta Euskalduna jauregira eraman ninduen", dio Saioa García. Heldutakoan lerrorik ere ez zegoen. Froga egin zioten azken aurreko pertsona izan zen. Badirudi epaimahaia gustura gelditu zela berak egindako lanarekin eta horrela hiru astetan zehar froga pilo bat egin ondoren "Itzi" papera berea zela jakinarazi zioten. Egun neketsuak izan ziren, baina giro atsegina eta laguntasuna nagusitzean esperientzia bikaina izan zela argitzen du Saioak. "Egia esanda ez nuen espero hartuko nindutenik. Horregaitik aukeratua izan ez banintz egun horiek eta horraino iritsi izana ez nituz-

ke sekula ahaztuko", zehazten du. Gauzak horrela, Bilbotik Donostiara abiatu eta bertan ordu dezente pasatzen ditu grabazio estudioan. "Lana ez da beti erreza, tirabirarik ere izaten da", diosku, baina orokorrean lankideen arteko harremana, teknikari, produktore, aktore eta gainerako langileena atsegina izaten denez, "lan orduak arindu egiten dira".

### LOTSATIA

Orain ohituta dagoen arren hasieran oso arraro egiten zitzaion bere burua telebistan ikustea. "Lotsa pixka bat ematen zidan eta lehenengo bospasei egunetan kojín batez estaltzen nuen aurpegia", aitortzen du Saioa García. Bestalde, antzezten duen pertsonaiari erreparatzen badiogu egia da zerikusi gutxi dutela batak eta besteak izateko formari dagokionez. "Itzi" bere buruarekiko segurtasun gutxi duen pertsona den bitartean Saioa



Aita tematu zelako aurkeztu zen aktore hautaketa probara

gutziz kontrakoa da. Hala ere, aspekturen baten edo beste parekotasuna izan dezakeela onartzen du, "adiskideengana-ko laguntasunean" esate baterako. Horrela ba, bizimodua nahiko aldatu bazaio ere Bilbora datorrenean "deskonektatzea" gustatzen zaio, baita orain arte egiten dituen gauzekin jarraitzea ere

**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfnoa: 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**Bikoitz**  
ARLOPAK ★  
ZILARRA ★  
OPARIAK ★  
Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO  
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

**MESÓN**  
**URETXE**  
Santuxuko poteo gunean

**Lanbroa**

**ARTESANIA LOIDI**  
Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tlf.: 94 473 10 65

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**Biktimganako Laguntza Zerbitzua** **Servicio de Asistencia a la Víctima**  
**Zeurekin gaude**  
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lanikidetzarako Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Ea hilabete honetan neskatza hori zure bidetik pasatzen den... Hala ere, ez ahaztu lagunak nahi duzunerako dituzula!

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Goiz bueltako zara lagunaren artera... gogoekin?? Orduan, imajina ezazu utzi zenituen lagun guztiak nola egongo diren...

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Lanarekin burusjota? Normala da... lan bila hasi eta azkenean hirutan denbora berean lan egiten... gauza bat dirua nahi izatea, baina noiz gastatuko duzu lortutako guztia... Aprobetza denbora, txikito!

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Zer moduz aspaldi hobetan?? Gauzak ondo, ezta? Ahoko irribarre lelo horrekin... ezin duzu disimulatu. Baina kontuz! Gero amak kontu eske etorriko zaizu eta.

**Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Beti ohean sartuta, ezer egiteko gogorik ez duzula. Hori ez da normala. Begiratu zer nolako eguraldia dagoen kanpoan... jantzi eta kalera!!

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Zelako zortea duzun! Zenbatek nahiko zuten duzun neska bat bezalakoa... Agian, batzutan humore txarra du, baina... hori bakarrik hileroko lau-bost egunetan zehar, txo!

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Bai... erretzari uzten zabilta, baina... ez duzu lortzen... Trankil apurka apurka emaitza positiboa izango da. Ez agobiatu eta ANIMO!!

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Familiarekin berriz ere bronka izan duzu, eta oraingoan zergaitik... animala bat nahi duzulako etxean... Ez duzu nahikorik zure neba-arrebekin, ala?

**Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Uda heltzear dago eta jada hasi zara zure gorputza zaintzen... Benetan uste duzu hilabete batetan urtean egin ez duzuna lortuko duzula???

**Capricornius:** abenduaren 24tik utarrilaren 20ra.  
AZTERKETAK!!!! Eta oraindino ez duzu apunterik lortu, hau komeria!! Beno zu trankil, klaseko norbaiti bazkaltzera gonbidatu eta... listo!! Eta dirua?? Horretan zuk pentsatu beharko duzu.

**Aquarius:** utarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Zu hemen, eta lagunak han... "Zer egongo diren egiten" pentsatzen zabilta denbora osoan pentsatzen, baina... zergaitik ez zara zutaz arduratzen eta gorputza mugitzera joaten zara?? Laister ikusiko dituzu!!

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Kurtsoa bukatzear dagoala eta orainarte egindako guztiarekin ez duzula kurtsoa gaintitzen... Ez arduratu, bi asteotan etxean geratu eta seguruenik aurrera aterako duzula kurtsoa. Ei! Baina ikasten gerta, eh? Ez telebista ikusten...

# agenda

**EKAINAK 5:**  
BIDEBARRIETAKO UDAL  
LIBURUTEGIA.  
GANBERA ASTEARTEAK.

**EKAINAK 8-10:**  
ERROMOKO ESKOLETAN. GETXOKO  
BLUES JAIALDIA. EGUNERO  
GAUEKO HAMARRETATIK  
AURRERA.

**EKAINAK 10:**  
EZKAURRERA BELAGOATI  
(NAFARROA). EGUZKILOREA  
MENDI TALDEA.

**EKAINAK 11, 13-15:**  
BIDEBARRIETAKO UDAL  
LIBURUTEGIA. URIBARRIKO  
GAILURRA MENDI TALDEAREN X.  
MENDI-JARDUNALDIAK.

**EKAINAK 15:**  
BILBOKO FUNDAZIOAREN  
URTEURRENA.

**EKAINAK 17:**  
ARABAN EUSKARAZ.  
ARGANTZUN. TREBIÑO.

**EKAINAK 24:**  
BIDEBARRIETAKO UDAL  
LIBURUTEGIA. GAUR EGUNGO  
MUSIKAREN KONTZERTUA.  
KURAIJA.

**EKAINAK 24:**  
BAKIOTIK PLENTZIARA IBILALDIA  
(BIZKAIA). EGUZKILOREA-MENDI  
TALDEA.

**UZTAILAK 1:**  
UREPEL LEITZATIK (NAFARROA).  
EGUZKILOREA MENDI TALDEA.

**UZTAILAK 2-7:**  
BIDEBARRIETAKO UDAL LIBURUTE-  
GIA. ARTEARI ETA KULTURARI  
BURUZKO BIGARREN TOPAKETAK.

*Ez nau izutzen negu hurbilak  
Udabetezko beroan  
Dakidalako irauten duela  
Orainak ere geroan.*

Xabier Lete